

JARDUERAREN FITXA

HEZKUNTZA ETA INKLUSIOA


SARE SOZIALEKIN LOTUTA



1. ETA 2. MAILAK
BATXILERGOKO

JARDUERAREN FITXA

“HEZKUNTZA ETA INKLUSIOA SARE SOZIALEKIN LOTUTA”



Helburuak

- Hezkuntzaren esparruko ekitateari eta inklusioari buruz hausnartzea maila globalean eta tokikoan, sare sozialak erabiliz analisirako eta adierazpenerako bitarteko gisa.
- Munduko hainbat lekutan hezkuntzarako sarbidean dauden desorekez jabetzea.
- Pentsamendu kritikoa garatzea hezkuntzaren esparruko bidegabekerien aurrean.
- Sormena eta adierazpena sustatzea, sare sozialetako argitalpenak diseinatuz.
- Kalitatezko hezkuntza inklusiborako proposamenei buruzko eztabaida eta hausnarketa kolektiboa sustatzea.

Materialak

- I. eranskina (Iparralde eta Hegoalde globaleko hezkuntzari buruzko irudiak)
- Folioak
- Errotuladoreak
- Kartoi mehea
- Mugikorrek erabiltzeko aukera (aukerazkoa)

Denbora

60 minutu, honela banatuta:

- 10 min: sarrera eta motibazioa
- 30 min: talde-lana
- 15 min: bateratze-lana eta eztabaida
- 5 min: itxiera eta amaierako gogoeta

Taldekatzeak eta espazioa

Espazioa: ikasgela arrunta (ziurrenik mugikorrek erabiltzeko aukerarekin).

Taldekatzeak: 4-5 pertsonako talde kooperatiboak.

JARDUERAREN GARAPENA

1. Sarrera eta motibazioa (10 min)

- Jardueraren helburua aurkeztea: munduko hainbat lekutan hezkuntza nola bizi duten eta sare sozialek errealitate hori nola islatzen duten eta errealitate horretan nola eragin dezaketen azterzea.
- Sarrerako **bideo** bat ikustea
- Abiapuntuko galdera: zuen ustez, munduko gazte guztiek zuek dituzuen hezkuntzarako aukera berdinak dituzte? Zergatik bai edo zergatik ez?
- I. eranskineko irudien analisia.

2. Talde-lana (30 min)

Dinamika: 4-5 pertsonako taldeak. Talde bakoitzak hiru argitalpen prestatuko ditu, fikziozko sare sozial baterako. Ezaugarri hauek izan behar dituzte:

1. Munduko beste leku batzuetako hezkuntzarako eskubidea adierazi behar du, eta pobretutako Hegoalde globaleko herrialdeen eta aberastutako Iparralde globaleko herrialdeen (Espainia, kasu) arteko konparazioa egin behar du.
2. Hezkuntza nolakoa izatea gustatuko litzaiekeen adierazi behar du.
3. Guztiontzako kalitatezko hezkuntza inklusiboari edo ekitatiboari buruzko irudi edo eslogan bat duen kanpaina bat jaso behar du.

Jarraibideak: argitalpen bakoitzak testua izan behar du, eta mezua indartuko duen irudi edo marrazki bat.

3. Bateratze-lana (15 min)

Talde bakoitzak bere argitalpenetako bat partekatuko du gainerako taldeekin. Sortu diren desberdintasunei, antzekotasunei eta proposamenei buruzko eztabaida txiki bat egingo da.

4. Itxiera eta amaierako gogoeta (5 min)

Hezkuntzaren esparruko desorekez jabetzearen garrantzia azpimarratuko da, bai eta sare sozialek errealitatea ikusarazteko eta eraldatzeko tresna gisa izan dezaketen balioa ere.



ERANSKINA

1. ETA 2. MAILAK BATXILERGOKO



Iparralde eta Hegoalde globaleko hezkuntzari buruzko irudiak:

